La Salle
Beasain

# ERRENAZIMENDUKO MURALAK AA-REKIN ZAHARBERRITZEN

## SARRERA

Duela 4 urte, 2021eko uztailean Elizan erretabluaren apaingarri txiki bat erori zen, xilofagoez kutsatua. Ez zuten espero, erretabluaren atzean, Juan Perez de Landak 1555.urtean egindako pintura errenazentistarik aurkitzea. Baina horma-irudi horien esploraziokin hastean horma zati batzuk erortzea saihestezina zela konturatu ziren. Eta horregatik, margolan horiek osatu gabe agertu ziren.

**Helburua: Beasaingo elizako pinturak zaharberritu adimen artifizialak eskaintzen dituen aukerekin.**





**Pasioaren murala digitalki zaharberritua.**

## 2. PROZESUA

**1. Informazio bilketa eta dokumentazioa**

Eliza bisitatu eta aditu bati elkarrizketa egin zitzaion informazio historiko eta arkitektonikoa jasotzeko. Argazkiak aterata, jatorrizko egoera irudikatu eta ezagutzeko baliabide bisualak bildu ziren.

**2. Errestaurazio digitala**

GIMP softwarearen bidez klonazio, mozketak eta itsasizko testurak aplikatu ziren irudiak osatzeko. Erabilitako tekniken bidez, irudiaren jarraitutasuna eta koherentzia bilatu zen.

**3. Adimen artifiziala eta geruza hautaketa**

AI tresnak erabilita hutsuneak osatu ziren. Azkenik, emaitzak geruza ezberdinetan antolatu eta egokiena aukeratu zen irudiaren osotasuna eta fideltasuna bermatzeko.

## 3. EMAITZAK



**David erregearen murala eta bere zaharberritze digitala.**

## 4. ONDORIOAK

Gaur egun, adimen artifiziala lagungarri izan daiteke irudi zaharren errestaurazio prozesuan, elementu faltak osatzeko edo eremu hondatuak birsortzeko. Hala ere, prozesuaren zehaztasuna eta fidagarritasuna bermatzeko, esku-hartze pertsonala funtsezkoa da, erabiltzailearen irizpide estetiko eta historikoetan oinarritutako erabakiak beharrezkoak direlako. Adimen artifizialak bere kabuz jarduten duenean, distortsio nabarmenak sor daitezke, jatorrizko irudiaren egitura eta esanahia oker interpretatzeagatik.